



## Euskal Herriko eguna

Santa Ageda bezperako kantu-erronda egin zuten Andoainen eta Urnietan, asteartean / 8-9

AIURRI

## Odola ematearen garrantzia

Kide berrien premia du Andoaingo odol-emaitzen elkarteak / 4-5

Debuta egingo du  
Riad Mouaffaq  
andoaindarrak  
K-1 kirol jardueran,  
asteburu honetan / 10-11

Buruntzako  
masta eta  
ikurriña eraitsi  
zituzten aurreko  
larunbatean / 2

**MATRIKULA  
OTSAILAREN 3TIK 14RA**

**EGAPE  
IKASTOLA**  
urnietarren eskola publikoa

943009275 HLH / EIP  
943899425 DBH / ESO  
[www.egape.eus](http://www.egape.eus)

ESKURATU  
INFORMAZIOA  
+ INFO



## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

**EZKERRA** ETA  
**ESKUBIA**  
(POLITIKAZ ARI NAIZ)



# Sinboloen guduzelai bilakatu da Buruntza

Aurreko larunbatean, ezezagunek Buruntza mendian jarritako ikurrina eraitsi zuten. 2022ko urriaren 1etik zutik zegoen, urte luzez egon zen gurutzearen toki berean. Azken gertaerarekin, Buruntza sinboloen guduzelai bilakatu da

## Erredakzioa ANDOAIN

Guduzelaia adieraren erabilera, ziurrenik, gehiegizko gerta dakioke gizartea XXI. mendeko atalaitatik aztergai duenari. Baina historian atzera egin ez eta ez oso urrutira, Buruntza mendia guduzelai izan zen. 1936ko abuztuan anarkistak, komunistak, sozialistak, abertzaleak eta errepublikazaleak Buruntzan eta inguruetan gortu ziren, Francoren aldekoak gerarazi asmoz. Hamabost egunez eutsi zioten Buruntza, Belkoain eta Txaldatxurreko defentsa-lerroetan. Armamentu gutxirekin eta prestakuntza militar eskasarekin, azkenean, amore eman behar izan zuten. Hiru urte beranduago, 1939, gurutzeara altxa zuten. Xedea, garai hartan, oso zehatza izan zen: 1936ko uztailearen 18an Francoren aldeko kolpe militarrean parte hartu zuten hildakoak omentzea. Hamar metroko altuera zuten gurutzearak.

Urteak eta hamarkadak aurrera joan ahala, karga sinboliko ilun hura galduz joan zen, harik eta 2021eko abendua iritsi zen arte. Gurutzeara eraitsi zuten, eta bota zutenek lehen lerroa ekarri zuten sinbolo handi horrekin nori egiten zitzaion gorazarre.



Ikurriña eta masta eraitsi zituzten otsailaren 1ean. AIURRI

Eraisketak eztabaida ekarri zuten inguruotara eta, geroztik, Buruntza mendia sinboloen jokaleku bilakatu da.

2022ko urriaren 1ean, gurutzearen oinarriaren gainean, abertzale talde batek ikurriña altxa zuten. Burnizkoak ziren masta eta ikurriña bera.

2023ko apirilean ikurriña eusten duen mastatik zintzilik hainbat bandera agertu ziren. 1936ko

udan borrokan izan ziren komunistak, anarkistak eta errepublikazaleak gogoan hartu zituzten. Oihalezko bandera haiek ez ziren luzaroan zintzilik izan ezezagunek kendu zituztelako.

2025eko otsailaren 1ean ikurrina eusten zuen masta eraitsi zuten, abertzale askoren haserrea piztuz. Sinboloen gudan azken aurreko kapitulua izan da. Berrirri jarriko dutela ziurra baita.

## KOMUNITATEA

EAJ-PNV ANDOAIN

### EAJ-PNVk gogor salatzen du Buruntzako ikurriñaren kontrako eraso



Andoaingo EAJ-PNVk, gogor salatzen eta arbuaitzen du Buruntzako ikurriñaren kontrako eraso. Bere garaian, ozen salatu genuen Buruntzako gurutzeara eraitsi izana. Orain, modu berean salatzen dugu ikurriñaren aurkako eraso berria.

Andoaingo EAJ-PNVk uste du ikurriñaren kontrako eraso herri baten ikur nagusiaren kontrako eraso dela. Herri honek izan dituen jazarpen, indarkeria eta eraso ororen gainetik, ikurriña herri honen askatasunaren sinboloa da, belaunaldiz belaunaldi euskaldunok defendatu duguna. Gogorarazi nahi dugu, ikurriña herri hau osatzen duten gizon eta emakume guztion sinboloa dela. Abertzaleontzat eraso hau benetan mingarria den arren, ikurriña guztion ikurra dela aldarrikatzen dugu.

Andoaingo EAJ-PNVk gogor salatzen ditu azkenaldian gero eta ohikoagoak bilakatu diren gorrotzoko mezuak, herri

honen ukazioa erreibindikatzen dutenak, ikurrinaren legitimitatea ukatzen dutenak eta iraganeko garai ilunetako nostalgia sustatzen dutenak.

Abertzale eta demokrata gisa, mota horretako mezuak ezin ditugu inondik inora onartu, ezta Andoainen ere. Pentsatzen dugu halako jokamoldeek ez dutela tokirik etorkizuneko elkarbizitza eraikitzeko, eta errotik eten behar direla.

Andoaingo EAJ-PNVk datorren astean hainbat ekimen ipiniko ditu martxan Andoaingo Udaletik, besteak beste, ordezkaritza politikoa duten alderdi guztiekin urgentziaz bilera bat deitzea eskatuko dugu. Herri ordezkari garen neurrian, eraitsi den ikurrinaren aurrean adierazpen bateratua ateratzen saiatuko gara, eta Andoaingo Udaletik, guztion artean, toki horretan ikurriña berria ipintzeko beharrezko pausuak martxan jartzea eskatuko dugu.



Iguaran, Eulako kupelen artean. AIURRI

# “Garai bateko sagardozaileen falta sentitzen dut”

**AITOR IGUARAN** EULA SAGARDOTEGIA

Gogoz hasi du denboraldia Eula Sagardotegiak, aurten: bost mila sagarrondo ditu, hamar hektarea eta erditan. Bada, ekoizpen guztiaren gidaritza darama Iguaranek

**Erredakzioa URNIETA**

**Urtarrilaren 24an ireki zenuten sagardotegia. Martxa hartuta dagoe-neko?**

Lasai samar gabiltza denboraldiaren hasieran, urtero bezala. Otsailaren erdialdean-edo hartu ohi du martxa sagardotegiak. Apirilera arte larunbat eguerdiak ia beteta ditugu, jada. Sagardotegi guztietan errepikatzen da joera hori.

**Zuen lanak, ordea, ez du etenik urte osoan, urtarrila hasieran Eulak ateak ireki ahal izateko, buru-belarri lanean ematen baitituzue gainerako hilabeteak.**

Bost mila sagarrondo ditugu, hamar hektarea eta erditan. Lan handia ematen du sagardoekoizpenak: belarra ebaki, kimatu, sagar-bilketa irailetik aurrera, baita salmenta ere. Ia egunero daukagu lana, astelehenetik larunbatera gure bezeroei sagardoa zerbitzatzeko.

**Tartean, maiz hartu izan duzue parte ENBAren “Ongi etorri base-rrira” jardunaldi irekietan. Zer moduzko esperientzia da zuen mundua erabat arrotza zaion jendeari erakustea?**

Gure sagardotegiaren historia esplikatzeko diogu gerturatzen denari, instalazioak erakusten dizkiegu, dastatzeko sagardoa eman... Jendea nahiko gustura gelditzen da esperientziarekin, bai. Pixka bat nekatuta iristen gara gu, uda hasierara, txotx-denboraldia amaitu berritan delako, baina egun polita izaten da.

**"BOST MILA SAGARRONDO DITUGU LANDATUTA, HAMAR HEKTAREA ETA ERDITAN"**

**Aldaketak izan dira azken bi urteetan Urrietako sagardo-ekoizleen artean. Zein etorkizun ikusten diozu sektoreari?**

Aldaketak izan dira, bai. Beti esaten da ezer ez dela betiko. Bada, sagardotegiaren kasuan ere, badirudi gauzak aldatzen joango direla sektorean.

**Osasuntsu jarraitzen al du sagardozailetasunak, gaur egun?**

Jende askok utzi gaitu, zoritxarrez, eta beste asko gora doaz adinean. Garai bateko sagardozaileen falta sentitzen dut: sagardoa dastatzea oso gustuko zuten, bizi egiten zuten sagardotegia. Ezberdina da, orain.

**Nongoa da, nagusiki, Eulara gerturatzen den jendea?**

Gehienbat, inguruko jendea etorri ohi da gure sagardotegira, Irun eta Tolosa bitarteko herrietako sagardozaileak. Normalean, ez dira talde handiak izaten, hobe pertsonatik beherako taldeak.

**Noiz arte izango zarete irekita?**

Apirila amaierara arte, 27ra arte, zehazki, izango dugu sagardotegia irekita. Ostegunetik igandera ematen dugu zerbitzua: afariak, ostegun, ostiral zein larunbatetan. Bazkariak, aldiz, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan.

**Interesa duenak nola egin behar du erreserba egiteko?**


Telefonoa da bide zuzenena. Bi aukera dauzka berezoak erreserba egiteko: 943 55 27 44 edo 647 43 77 03 telefono-zenbakietara hots eginda.

**"APIRILAREN 27RA BITARTE IZANGO DUGU SAGARDOTEGIA IREKITA"**

## Txotx 2025

### GARAIA GARAIA: “TXOTX!”

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia



Imanol Chorro eta Larraitz Larrea Andoaingo odol-emaileak. AIURRI

#### Xabier Lasa ANDOAIN

Odola ematea uste duguna (edo uste nahi duguna) baino ekintza erosoagoa da. Nahikoa da gizartearen ongizatearen aldeko kontzientzia pitin bat hartzea, eta nagia astindu ostean, pausoa ematea. Herriko anbulatorioan edo dena delako eraikinean, 20-30 minutu ordu eskaseko saioan eman dezakegun odol-kantitate horrek hiltzorian dagoen gaixo bati bizia eman diezaiokela pentsatze hutsa, nahikoa behar luke izan.

#### Ez ematetik ematera doan jauzi pertsonala

Ez da denbora asko igaro Larraitz Larrea eta Imanol Chorro odol-emaile egin zirenetik. Larreak zehaztu duenez, “nik 2020an eman nuen lehenbiziko aldiz, eta hamar bat dohaintza egin ditut, jada”. Chorro berantiarra da, “2024ko urtarrilean ematen hasi, eta hiru txandatan joan naiz anbulatoriora”.

Normalki, odol-emaileek nahiko gogoan eduki ohi dute noiz izaten den lehenbiziko txanda hori, zein egoeratan eta zergatik erabakitzen duten. Larreak gogoan daukanez, bere buruari gogor egin zion egun hartan, eta

# Odola ematea, premiazko ekimen solidarioa

Larraitz Larreak eta Imanol Chorro odola urtean hiru-lau alditan emateko dauzkaten arrazoiak eta ekintza altruistaz hausnartu dute, Aiurriekin eduki duten solasaldian. Datorren astelehenean, otsailak 10, odola emateko aukera berria dago

serio heldu zion aspaldian egiteko zeukanari, “joan beharra daukat eta joan beharra daukat esan bai, baina joan ez, eta azkenean egin nuen”.

Chorrok ere argi dauka zerk bultzatu zion erabakia hartzera.

“Andoaingo Odol Emailek urtero antolatzen duten aitortza-ekitaldira gonbidatu zuten aita; betidaniko odol-emaile da eta 75 emanaldi zeuzkalako nabarmenduetako bat zen urte hartan. Bada, berari ezinezkoa zitzaion

joatea, eta niri eskatu zidan agertzeko, oroigarria jasotzera. Udaletxean egin zen ekitaldia, eta ekitaldiaren ondorengo zizka-mizkatan, zenbait odol-emaileekin tertulian jarduteko aukera eduki nuen”.

Chorrok aitortu duenez, barru-barruraino iritsi zitzaizkion han entzundakoak. “Kasu partikularrak kontatzen zituen jendeak, odola zein lagungarria izan zen honentzat eta harentzat, bizia salba zezaten. Zehazki, batek aipatu zuen nola bere alabak erditzerako unean, egoera konplikatu, eta nola hasi zen odola izugarri galtzen; ez baliote odol transfusioa egin, akabo! Ezaguna dut aipatzen zuen emakume hori, eta gertutasun horrek zer pentsatua eman zidan, odolaren premia”.

Chorrok gehitu duenez, erdiurren zegoen emakumearen istorioak eman zion azken bultzada, Andoainen odola emateko aukeran jarri zuten lehenbiziko hitzordura hurreratzeko, bi aldiz pentsatu gabe. “Aita eta anaia, biak ditut odol-emaile etxean, eta niri falta zitzaidan pauso hori ematea. Aitak matraka ematen zidan behin eta berriro, are gehiago jakinda biztanleriaren oso portzentai txikiak daukan 0 negatibo odol-motaren jabe naizela. Baina nik beti jartzen nizkion aitzakiak erabakia hurrengorako uzteko”.

#### Kostatzen den ekintza

Egiten diren inkestetan argi geratzen da gizartearen gehien-gehiengoa kontzientzia dela odola emateak guztion ongizaterako daukan garrantziaz; are gehiago, jakitun da norberari edo ingurukoren bati goiz ala berandu egokituko zaiola besteek emandako odolaz baliatzea bizia salbatzeko edo gaixotasunaren aurkako tratamenduetan seguri izateko. Praktikan, ordea, jende ugari izugarri kostatzen zaio erabakia hartzea.

Errealitate hori zenbakiataraz eramanez gero ohar gaitzetzeko utzikeria sozialaz mintzatzen ari garela: esate batera, iaz jakinenez, EAEn, % 2,3 baizik ez da odol-emaile.

Gipuzkoan, 18.000 ohiko odol-emaile daude, eta, 2024an, 2.545 pertsonak heldu zioten lehenbiziko emanaldi horri. Kopuru txukuna dirudi, baina herrialdean eta herrietan odola ematea sustatzen duten elkarteak nahiko kezkatu agertu izan dira azkenaldian, odol-erreserbak ez direlako nahi adinakoak. Ohartarazten ari direnez, emateko gai diren guztiek emango balute, asetuta egongo litzateke egun dagoen odol-eskaria, ez lukete



Lehenbiziko aldiz ematearen erabaki irmo hori izaten da hartzten zailena, Larea eta Chorroren ustez. AIURRI

"krisi" hitza aipatuko. Nolanahi ere, errealitatea egoera ideal horretatik nahiko urrun dagoela, ordea, aitortzen dute.

Nagusiki, belaunaldi gazteek eragiten diete kezka, ez baitira nahi adina batzen ari odol-emaielen taldera, eta ez dira iristen arrazoi desberdinengatik (adinez aurrera, heriotza...) odola emateari uzten diotenen hutsunea betetzera.

#### Aitzakiak, nahi dituenak bilatzen ditu

Norberekoikeriak mugitzen dien gutxiengoak kenduta, esan dezakegu alferkeria dela, oro har, arrazoi nagusia ekintza sozial horri ez heltzeko. Nahiz eta gero arrazoi edo aitzakia ugariz estali nagikeria hori.

Orratzaren zitzadak eragiten duen izua, hozkirria, dardara... ere izan ohi da arrazoi nagusienetakoa, uko egiteko odol ematearen ekintzari, Larreak dioenez: "Ulgarria izan daiteke zitzakoarekin dagoen erreparoa; bakoitzak modu batera bizi du orratzarena, baina une bateko kontua besterik ez da, eta ez da horren larria hotzean pentsatzen jartzen bazara".

Egunero, goizetik gauera konpromisoa beterik egotea eta odola emateko betarik ez edukitzea da beste arrazoietakoa bat, odola ez emateko orduan. Gizarte-habitoak, bizi-baldintzak... aldatu egin direla aipatzen du Chorrok: "Gure aurreko belaunaldiek ohi-tura hartuta zeukaten maiztasun jakin batekin anbulatortzara joa-

teko; asko pentsatu beharrik ez zuten. Sozializatzeko ere ondo etortzen zitzaizkien ekintza hori. Akaso, arratsalde osoan ez zeukaten beste zereginik, eta anbulatorioan bertan, odola eman ondoren patxadan geratzen ziren tertulian honekin eta harekin. Gaur, ordea, ez daukagu ezertarako tarte librerik, eta estres betean bizi gara, orain kirol entrenamendua, gero ikastaroa, hurrena familia... Egia da makina bat aktibitatean murgilduta bizi garela. Baina, oso noizean behin, tartetxoa hartu dezakegu; hartzeko interesa benetan duenak, hartu dezake".

Odola emateko baldintzak bete arren, oraindik, pauso hori eman ez duten pertsonak, nagia astindu ditzaten eta erabakia hartu dezaten animatzen ditu Larrait Larreak, "behin probatzen duzunean ohar hartzen zara ez dela hainbesteko ahalegina, zeure buruari jartzen zenizkion aitzakiak, aitzaki besterik ez zirela. Ordu erdiko ekintza besterik ez dela, eta ez dela hainbeste kostatzen. Eta, ordainean, satisfazio pertsonal handia hartu dezakezu pentsatzeak ezagutzen ez dituzun zenbait pertsonari bizi ematen edo beren ongizatea hobetzen ari zarela".

**ANDOINGO ODOL-EMAILEN ARTEAN ERRELEBO FALTA ANTZEMAN DUTE**

#### Andoainen, hileroko hitzordua

Andoainen, hileroko bigarren astelehenean izaten da hitzordua, anbulatorioan bertan, arratsaldeko 16:30etik 20:30era. Bezperan, odol-emaielen mugikorretik mezua jasotzen dute hitzordua datorriela gogoraraziz; telefonoa ematen zaie ordua hartzeko, horretarako libre direla ikusten badute.

Lehenbiziko aldiz ematearen erabaki irmo hori izaten da hartzten zailena. Hortik aurrera, dena da errazagoa. Anbulatorioko hitzordura doan ez du zertan kezkatu, Larreak dioenez: "Anbulatorioan oso jende jatorra, atsegina topatzen dugu odol-emaielen. Saioak hileroko-hileroko antolatzen dituzte, eta benetan badute meritua horiek, eta baita bertan aritzen diren osasun-langileek, erizainek zein medikuek ere".

Larreak esandakoa baieztatu du Chorrok: "Gogoan daukat lehenbiziko aldian nola azaldu nintzen urduri. Iruditzen zait gelara sartzen ikusi orduko hartu zidatela tankera, 'aurreneko aldia, ezta?' galdetu baitzidaten. Egia esan, oso ondo zaintzen zaituzte; txantxekin-eta tratu goxoarekin lasaiarazten zaituzte".

**ODOL-EMAILEN HITZORDUA DATORREN ASTELEHEN ARRATSALDEAN IZANGO DA**



Andoaingo odol-emaielen nabarmenduei aitortza ekitaldia, 2023ko abenduan. Bertan ageri da Imanol Chorro, aitari zegokion oroigarriarekin. AIURRI

## Datu jakingarriak

- Odola ezin da fabrikatu; ez da ez erosten ez saltzen.
- Odola 18 eta 70 urtekoek eman dezakete, osasunez sano daudenak eta 50 kilo baino gehiago pisatuz gero.
- Gizonek, urtean, 4 aldiz eman dezakete. Emakumeek, 3tan.
- Emate-prozesu osoak, atsedena barne, ez du 30 minutu baino gehiago irauten.
- 450 mililitro odol ematen dira saio bakoitzeko. Kopuru hori, normalean izaten den odolaren %10 baino ez da; ehuneko horrek ez du eragozten organismoaren ohiko funtzionamendua.
- Odola emanez gure osasun-sistema sustatzen dugu, gure osasuna partekatzen dugu ez daukatenean.
- Egunero, hamarnaka paziente salbatzen dute beren bizi ospitaleetan, edo beren osasuna berreskuratzen dute odol-transfusioari eta deribatuei esker.
- Minbizi-tratamenduak, kirurgia konplexua, trafiko-istripuak, organo-transplanteak... ezinezkoak lirateke odol-ematerik gabe.
- Onurak ez dira bakarrik izaten gaixoenentzat, baita odol-emaiela ematearen ere. Odolak biziak salba ditzakeela jakiteak eragiten duen onura emozionala gain, bere osasunari egiten dio mesede: orekatu egiten du bere gorputzeko burdina-maila, areagotu biriken ahalmena, hobetu odol-fluxua, bihotza babesten laguntzen du, kaloriak erretzen ditu, kolesterola jaisten laguntzen du...

**ZOKKETA**

## Erremonteaz gozatu nahi?

**AiurriKIDE bazara,** astero-astero, sarreren zokketan parte har dezakezu.

Idatzi "Erremontea", zure izen-abizenak eta bidali:

- **Whatsapp:** 619 163 537.
- **E-posta:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

**Okm:** batzen gaituen distantzia

Egin zaitez AiurriKIDE

**AIURRI KIDE**



2024ko azken plenoan onartu zen 2025ari dagokion aurrekontua. AIURRI

# Inbertsioen aurrekontua

Urnietako Udal Gobernu taldeak, EAJ-PNVk eta PSE-EEK osatuta, 2025erako aurrekontuari bide eman zioten abenduko udal batzarraldian. Inbertsioetan jarri zuten azpimarra. EH Bilduk, bere aldetik, beste alor batzuk aintzat hartzea eskatu zuen

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Urnietako Udalak 2025ari ekin dio, urteko aurrekontu-proposamena eztabaidatuta eta onartuta. Abenduaren 19an egin zuten batzarraldia eta bertan argi berdea eman zioten 13,6 milioi euroko aurrekontuari. Gobernu taldeak inbertsioetan jarri du azpimarra: arrapala mekanikoak Arantzubín, Idiazabal kalea oinezkoentzat bideratzea, Teresa Amuategi parkea partzialki estaltzea, kirol instalakuntzetako argiterian LED sistema ezartzea. Ahaztu gabe aurten eraikitzen hastekoak direla Egapeko DBH eraikina. Inbertsio horiei aurre egiteko gastu eta sarrera gehigarriak behar dira. Diru-sarrerak Miravalleseko industri-eremuaren

salmentatik eta Lasarte-Oriarantzko bidea egiteko aurreratuak diruaren itzulketatik iritsiko direlakoan daude.

Inbertsioez gain, hainbat zerbitzu-kontratu eguneratuko dira eta horrek gastuaren handitzea dakar. Gobernu taldeak zerren-

datu egin ditu, prentsa-oharrear, horietako batzuk: kaleko hezitzaileak, Eguzkitan Blai, Sarobe, Añarbeko urak (% 2ko igoera), San Markos mankomunitatea (% 8ko igoera), Beterri Buruntzako ekarpina (20.000 euro gehiago).

Dirulaguntzen atalean, iazkoari eustea da Gobernu taldearen irizpidea.

**Herme Gonzalez,**  
**PSE-EE**

Azken urtetotako aurrekontu handiena eskuartean izanik, poza agertu zuen alderdi sozialistaren bozeramaileak. Berak ere inbertsioen atala nabarmendu zuen, bere hitzartzearen hasieran. Segidan, PSE-EEren ardurapean dauden sailtako

hainbat partida zerrendatu zituen: argiteria elektrikoa berri-tzea, ingurumenaren aldeko politikak, elkarbizitza areagotzea eta Gizarte Zerbitzuetako beste hainbat gehiago. Errealitatera egokitutako proposamena izanik ere, ilusioz beteriko egitasmoak hizpide izan zituen: DBHko eraikina, parke inklusiboa, Zabaletarantz doan errepidea, Babiloniko eremua...

**Euken Garmendia,**  
**EH Bildu**

Oposizioko buruak jarrera erakitzailea izan zuela adierazi zuen hitzartzearen hasieran. Eta, adibide modura, tasen onarpena eta mugikortasun plana onartzeko adostasuna aipatu zituen. Aurrekontuan txertatzeko hainbat proposamen aurkeztu zituztela adierazi zuen, herriko eragileekin eta herri-tarrekin izandako bileretatik sorturikoak. Besteak beste, kirol instalakuntzak eta Goi-buru aldeko ekipamendua berri-tzea. Horrez gain, dirulaguntzen atalean, Aiurriri, UKERI eta Xoxokako Jai Batzordeari partidak handitzea aldarrikatu zuten.

Kexu agertu zen, bestalde, aurrez lotutako proposamena aztertze epea izan zutelako. EH Bilduk uste du Gobernu taldeak aurreko urte-tako aurrekontu-proposamen ildo beretsuari eutsi diola, berrikuntzarako edo aldaketarako aukera txikiarekin.

**EAJ-PNV ETA PSE-EE  
AURREKONTUAREN  
ALDE AGERTU ZIREN.  
EH BILDUK AURKAKO  
BOTOA EMAN ZUEN**





Olaederra kiroldegiaren eraberritzea faseka egingo dutela iragarri zuen Andoaino alkateak. AJURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2023-2027 agintaldiko bigarren aurrekontua aztergai izan zen aurreko osteguneko udal batzaraldian, eta bertan ikusi ahal izan zen aztergai nagusiei ekitako adostasun politiko zabala dagoela. Izan ere, EH Bilduren, EAJ-PNVren eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin 2025erako aurrekontu proposamena onartu zen. PSE-EE kritikiko agertu zen eta, hainbat proposamen luzatzearekin batera, aurkako botoa eman zuen.

Andoni Alvarez alkatea, EH Bildu

Aurrekontu proposamenean alderdi guztien ekarpenak jasota zeudela esanez eman zion hasiera bere lehen adierazpenari. EAJ-PNVren eta Elkarrekin Podemosen proposamenak negoziaketen ondorioz iritsi dira. PSE-EEk egindako proposamen bat txertatu dute, bestalde, Udal aurrekontuan.

Pedagogia ariketa egin zuen lehenik eta behin Alvarez alkateak. Diru-sarrerak nondik datozen argitu zuen, lehenik: ia 28 milioi horietatik % 46 foru funtsatik dator, beste %42 tasa eta zergen bidez eta, azkenik, % 11 bestelako dirulaguntzetatik eratorritakoa da.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzea premiazkoa dela uste du

# 28 milioi euroko aurrekontua

EH Bilduk zuzentzen duen Gobernu taldeak EAJ-PNVren eta Elkarrekin Podemos alderdien aldeko botoa jaso zuen 2025eko Udal aurrekontua eztabaidatu eta bozkatu zen plenoan. PSE-EE aurka agertu zen

Alvarez alkateak. Etxebizitzaren arazoaren jakitun izanik, hainbat urrats emango dituztela iragarri zuen: dagoeneko partida batzuk aurrekontuan txertatuta daude eta, horiez gain, kezkak eta zalantzak argitzeko zerbitzua zabaldu nahi dute.

Gizarte Zerbitzuen saileko Etxez etxeko zerbitzuari bideratutako partida nabarmen igoko dute. Funtsean, langileen lan-baldintzak hobetzeko. Horrek,

**EH BILDU (8), EAJ-PNV (3) ETA PODEMOS (1) AURREKONTU-PROPOSAMENAREN ALDE AGERTU ZIREN**

ondorioz, zerbitzua hobetzea ekarriko duelako.

Allurralde kiroldegian eraldaketa faseka izango dela iragarri zuen, alkatearen hitzetan, kiroldegia ixtea ez baita aurrakusten. Lehen fasea diseinatuta dago, bereziki, ituteak desagertarazteko eta aldagelak hobetzeko.

Kiroldegiko langileen lan baldintzak hobetzeko plegua martxan jarriko dutela iragarri zuen.

Bestalde, ibilgailu elektrikoen kargarako bi puntu berri jarriko dituzte Karrikan eta Agustin Leitza kalean. Beharraren arabera, puntu berriak jartzeko prestutasuna adierazi zuen.

Birziklapen-tasa hobetzeko neurriak martxan jartzea, Kultur Mahaiari segida ematea eta

Eskola Kirola bateratuaren aldeko urratsak ematea izan ziren alkateak aurrekontuen aurkezpenean nabarmendu zituen beste hainbat puntu.

Inbertsio estrategikoei aipamena emanez amaitu zuen aurkezpena. Udal liburutegi berria, kiroldegiko bigarren kantxa, zerbitzuetako pabilioia, emakumearen etxea eta auzo ezberdinetako egokitzapenak hizpide izan zituen.

**PSE-EE (5) OPOSIZIOKO LEHEN ALDERDIAK KONTRAKO BOTOA EMAN ZUEN**

Aritz Alkain, PSE-EE

2024an egindakoaren bidetik, alderdi sozialistak hainbat proposamen egin ditu dagokion lansailan eta baita plenoan ere. Arduratsu jokatu dutela esanez ekin zion bere adierazpenari alderdi sozialistaren bozeramaileak. Gastuan eta inbertsioan egindako proposamenak azaltzeaz gain, partida-zerrenda aurkeztu zuen Allurralderi, Anbrosia Olabide eraikinari eta abarri eragiten diotenak. Soziala, justua eta berdea da ametssezko Andoain sozialistentzat. Seguratasunaren alorrean, sozialistentzat kamera gehiago jartzea da irtenbidea. Eta partaidetzako aurrekontuei dagokionez, aurreko urteetan onartutakoari bidea ematea eskatu zuen.

Imanol Goenaga; EAJ-PNV

Lehen interbentzioan EAJk egindako ekarpenak hizpide izan zituen, beti ere, egingarriak, aurrekontu txukunena osatze aldera. Goenagarentzat mugarrira 2024an eman zen, eta ondoren iritsitakoa horren ondorio izan da. Mugarrira, beraz, iaz EAJ-PNVk eta EH Bilduk adosturiko akordio-markoa izan zen. Eta, horrela, iaz, akordioa hirukoitza izan zen: 2024ko udal aurrekontuan adostea, inbertsio estrategikoen egutegia osatzea eta udalgintzako hainbat alor bideratzeko adostasun politikoa lortzea. Balorazio orokorra positiboa denez, bide horretan sakondu eta 2025eko aurrekontua ere adostu dute bi alderdi abertzaleek. Partida zehatzetan begirada jarrita, haurreskolako jolastokia hobetzea, irisgarritasuna hobetzeko partida, Leizaur parkean eta Dr Huitzin komun publikoak kalean jartzeko egitasmoak eta Bertxingo zentrala atontzeko partida aipatu zituen Goenagak.

Pepe Iparragirre, Elkarrekin Podemos

"Lan ona egin dugu, jarrai dezagun horretan". Hori esatera mugatu zen Iparragirre.

Lehen interbentzioen ostean, bozeramaileen arteko eztabaida abiatu zen kritikari tarte zabalagoa eskainta. Bozketan, EH Bildu (8), EAJ-PNV (3) eta Elkarrekin Podemos (1) aurrekontu-proposamenaren alde agertu ziren. PSE-EE (5), berriz, aurka agertu zen.



Etxeberrieta plazatik abiatu zen kalejira, astearte arratsaldean. AIURRI

# Kantuan, kalez kale

Kantuzaleentzat eta euskaltzaleentzat data seinalatua da otsailaren 4a. Urteak dira Larramendi Bazkunak Santa Ageda bezperako kantu-erronda antolatzen duela. Asteartean, beste behin ere, dozenaka lagun elkartu zen

## Erredakzioa ANDOAIN

Urteak daramatza Santa Ageda bezperako kantu-erronda antolatzen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Urte luzez, Dr. Huitziko egoitza paretik abiatzen baziren ere, astearte arratsaldean, Etxeberrieta plazatik irten

ziren. Ohiturarekin bat eginez, dozenaka lagunek bat egin zuten deialdiarekin. Haien artean ziren euskara elkarteko kideak, abesbatzako partaideak, ikastetxeetako ordezkariek eta familiak. Hiru belaunaldi elkartu ziren kalejiran.

## Otso Beltza

Bixente Olanoren biltze-lanari zor zaio, hein batean, Andoain aldean ahozko tradizioan jasotakoa. Haren eskutik iritsi zen "Otso beltza" kantua. Argitalpen berezia egin zuen Bazkunak, kantua testuinguruan jarrita.

## Larramendi Bazkunaren eskutik



Ane Jalón Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria. AIURRI



Bazkunak bi argitalpen plazaratu ditu "Otso Beltza" kantua hizpide izanda. Bixente Olanoren eskutik lehena 1996an, eta Garazi Kamioren eskutik bigarrena, 2023an. AIURRI



Hiru belaunaldi, argazki berean. AIURRI

## Aiurrikide izatea %30 merkeago

Aiurrik **lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2024ko jardueran** Aiurriari egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitortzen egiterakoan.



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI  
KIDE**





Ohi bezala, San Juan plazatik abiatu zen Urnietako taldea. AIURRI

# Santa Ageda bezperako kantujira

Makil-kolpez bete ziren Urnietako kaleak, astearte iluntzean, Santa Ageda bezpera ospatzeko. San Juan plazan egin zuen hitzordua Kantazaunek, ohiturak agindutako doinuak abestuz, herriari itzulia emateko

## Erredakzioa URNIETA

Herriko plazatik abiatuta, Arantzubiko bidea hartu zuten Hiazinto Fernandoren jaiotetxean geldialdia egiteko. Haren omeneko koplak abestu zituzten bertan, Zelaialde plazarantz jarraitu aurretik. Hurrengo saioak Guriako plazatzxoa, Matxonean

eta Etxeberri plazan egin zituzten. Behin eztarria lehortuta, Altuna sagardotegian afari eder batekin biribildu zuten kantujira. "Berri freskoen iturri, euskara hutsez Aiurri, herria zure egarri baina utzi zaituzte hain urri". Iaz bezala, Aiurriren aldeko koplak abestu zituzten. Aiurri.

eus webgunean ikusgai daude hainbat argazki eta bideo. Ekimen beteko egunak izan dira Kantazaun taldekoentzat. Hilabete amaierako kantujiraren bezperan, Lete eta Iriondo gogoan hartu zituzten Zilegi Eskolan. Eta, asteartean, Santa Ageda bezperako kalejira egin zuten.



Kalez kale ibili zen kantari taldea, astearte iluntzean. AIURRI

**ARRERAK ENTRADAS**

**FINAL HANDIA**

Otsailak 8 Larunbata  
15:15etik aurrera Gafarreta Jai Alai Hernani

---

1. Partida (3 setera)  
**URRIZA • ZUBIRI vs ALDABE • LARRAÑAGA**

---

Kutxabank Masters Txapelketa (30 tantora)  
**ANSA II vs AZPIROZ**

---

3. Partida (3 setera)  
**GOIKOETXEA V • APEZETXEA vs GURRUTXAGA • MARTIRENA**

**eitb**

**ZUZENEAN**

ORNA MENEZ BIZIKI

Orona

VOLVO Auto Suelte

55 SUKIA

AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Mouaffakek adierazi duenez, "egundoko ilusioa" egiten dio Tafallako borrokaldiak. Hori bai, zehaztu duenez profesional izateak ez du inondik ere esanahi lanbide izango duenik K-1a. "Izan ere, kontaktuzko kirol horietan, eta lehiaren munduan, profesional izateak zure ibilbidean pauso bat aurrera egitea dakar, ez besterik. K-1 hobbytzat hartuko dut etorkizunean ere".

Alex Torreguitart funestarra izango du aurkaria Tafallako jaialdian, 65-70 kilodunen mailan. 11 borrokaldi eginda, Torreguitart eskarmentu handiko kick boxerra den arren, hura garaitzea espero du Mouaffaquek. Aitortu duenez, lagungarri izango ditu zaletuen animoak horretarako, "gertuko lagun batzuk joango dira animatzaera, eta andoaindar gehiago ere azalduko balira, primeran!".

Guztira, Tafallan, 15 borrokaldi hiru modalitateetan (boxeo, K1 eta arte martzial mixtoa-MMA) jokatu dira. Larunbatean izango da, 16:00etan hasita.

Tafallako kirol-jaialdia eta Andoain aipatzen hasita, Mouaffaquek aspalditxotik daukan ametsa aitortu digu: "Polita izango litzateke Andoainen halako jaialdia antolatzea, publikoari ikus-kizuna eskaintzeko, kirol mota horiek sozializatzeke, horiengandauden estigmak uxatzeko, gazteen artean zaletasuna pizteko...".

**Ibilbide luzea arte martzialetan**

Zenbait arte martzialen (Muay Thai, Kick Boxing, Karate, Taekwondo...) eta boxeoren teknikak uztartzen dituen diziplina da K-1. Ring batera igota, bi aurkariak ukabilkadak, ostikadak eta belaunkadak erabili ditza-kete, horretarako ezarrita dauden arau batzuei jarraiki.

Lehiaketetan, oso borrokaldi biziak izan ohi dira, oso denbora laburrean, kirolariak dena ematera behartzen dituena. Hain zuzen, hiruna minutuko hiru borrokaldiek osatzen konbatea.

Nolanahi ere, Riad Mouaffaq arte martzialetan sustraitzen diren beste zenbait kiroletan aritutakoa da, aurrez.

"Txikitatik, judoa erakargarria egiten zitzaidan, eta amak Iñaki San Martinek gidatzen duen Andoaingo judo klubera eramanez ninduen". Han urte batzuk eginda, Kenpo Kairarako (defentsa pertsonalerako kolpe teknikak

# Tafallan egingo du debuta Riad Mouaffaq andoaindarrak

**RIAD MOUAFFAQ BOUDALI K-1 JARDUERAN PROFESIONALA**

Boxeoren hainbat teknika uztartzen ditu K-1 jarduerak eta andoaindarrak asteburuan egingo du debuta Nafarroan. Herriko hainbat lagun izango ditu ikusleen artean



Riad Mouaffaq arte martzialetan sustraitzen diren beste zenbait kiroletan aritutakoa da. **AJURRI**

lantzen dituen arte martziala) jauzia egin zuen.

Arte martzialetako ibilbide hori moztu egin zuen halako batean Mouaffaquek, eta futbole- ra bideratu zuen gogoia, Euskalduna taldearekin. Jubenil mailetatik igaro ostean, baina, arte martzialetan heldu zien berriro. Oraingoan, Jiu-Jitsu (defentsa pertsonala eta borrokarako teknikak lantzen dituen arte-martzial brasildarra) modalitateari bota zion begia.

Azpimarra beharra dago denbora laburrean oso urrun iritsi zela Jiu-Jitsuarekin, 2023an Espainiako txapelketa irabazi baitzuen. Urte hartan, Europako txapelketan ere hartu zuen parte Parisen, "ez nintzen eroso ibili, urduritasuna zela-eta; lehenbiziko errondan kanporatu ninduten".

**Bi gimnasioetan prestatzen**

K-1 modalitatean topatu du bere neurriko kirola Mouaffaquek; oso gustura dabil, eta biziki eskertzen die bidean ezinbesteko izan dituen, eta izaten segitzen duten bi irakusle: Jose Vicente Eguzkitza eta Mikel Rodriguez. Burlatan (Gimnasio Kanku) dauka gimnasioa lehenak, eta Martutene auzoan (Kuraia Fight Club) bigarrenak. "Izugarrizko mailako borrokalariak izan dira, eta prestatzaile gisa ere ezin bikainagoak dira biak. Askok irakatsi didate hainbat arlotan; hala nola, teknika, indarra, elastikotasuna, diziplina, autokontrola, aurkaria azterketa...".

Amateur gisa, hamar borrokaldi egin ditu; horietatik zazpi irabazi ditu, eta hiru galdu. Egindako borrokaldi saio horietan asko ikasi duela aitortu du Mouaffaquek, "segurutasun ezak, urduritasuna, beldurrak... gainditzeko joan naiz".

Gaur egun bere burua lehiari segitzeko txukun prestatuta dagoela iruditzen zaio. Are gehiago, erantsi duenez, geroz eta erosoago sentitzen da ringera igo eta borrokaldiari ekiten dion bakoitzean, "hazi egiten naizela esango nuke. Aurkaria aurrean, argi-fokuak, publikoa begira eta garrasika... Espektakulu edo zeremonia guzti horrek eragiten duen adrenalinarekin eragina-edo izango da".

**Indarkeriarekin identifikazioa**

Kontaktua fisiko handiko kirola praktikatzen duela gogorarazten



Eskuinean, buruko beltzarekin, Riad andoaindarra. MOUAFFAQ



"Polita litzateke Andoainen halako jaialdia antolatzea", dio Riadek. MOUAFFAQ

zaioean, hala dela onartu du Mouaffaqek: "Kolpe latzak jasan, jasaten ditugu; beharbada lehia- ren beroan ez dira sumatzen, baina, gero, hotzean, bai!".

Nolanahi ere, kiroltasuna nabarmentzen du Mouaffaqek. "Ringean aurrean suertatzen zaizun aurkaria ez da zure laguna, aurkaria baizik; biok ere kontziente gara irabazteko min eman beharko diogula besteari. Baina ezereen gainetik errespetua nagusitzen da normalki, irabazi ala galdu. Nire kasuan, borrokaldietan egokitu zaizkidan

aurkari gehienak oso umilak eta adeitsuak izan dira. Horrela, borrokaldi baten ondoren egin izan ditut lagunak".

Ezinegon puntua antzematen zaio halako kirolak batik bat biolentziarekin lotu ohi direla esaten zaioean: "Errazegi jar- tzen zaizkie etiketa ezkorrak, eta biolentziarekin, delinkuen- tziarekin, etika gutxiko jendea- rekin, mafiarekin... identifika- tzeko joera izaten da; egia esan, zineak badauka erantzukizuna aurrejuzgu horiek zabaltzeko orduan".



Aurreko asteburuan, partidari hasiera eman aurretik, Urnietako futbol zelaian ateratako argazkian. AIURRI

# Partida erabakiorrak UKEko lehen taldearentzat

**FUTBOLA** Ligako azken bi jardunaldien ateetan dira Urnieta KEko gorengo mailako erregionalak, eta Ilintxa eta Orioko taldeen aurka emaitza ona lortu behar dute. Etxean galdu ostean, Legazpin hiru puntuak eskuratzeko gogoz dira gorritxoak

## Erredakzioa URNIETA

Emakumezkoen Gorengo erre- gionalaren 2.multzoan jokatzeko ari da Urnieta, eta ligako azken bi partidak emozio handikoak izango dira: Asteburu honetan Legazpin jokatu dute azken aurrekoa, eta azkena Urnietan izango da Oriokoren aurka.

## FUTBOLA

LIGA, 16. jardunaldia:  
URNIETA-GOIERRI GORRI B 1-2

## SAILKAPENA

1	DEBAGOIENA	28 p.
2	SEGURA AIZKORRI	28 p.
3	ORIOKO	23 p.
4	AIZTONDO	22 p.
5	URNIETA	18 p.
6	GOIERRI GORRI B	16 p.
7	ILINTXA	16 p.

## Taldekieen mezua

Partida erabakiorrak dituzte aurretik. Lehena, asteburu honetan: "Aurrekoa norgehiagoka gogorra izan zen guretzat. Gogor gabiltza lanean, eta, hilabete



Urnietarren jaurtiketa, aurreko asteburuan. AIURRI

honetan, bi final gelditzen zaiz- kigu. Sinisten dugula argi dago, lortu nahi duguna ere gertu dugu, baina, lortu arte, sufritu egin behar dugu. Igandean, Legazpiko

partidara animatzera joateko gonbitea luzatu nahi dizuegu. Irene Paredesen zelaian jokatu- ko dugu! Denon artean 3 puntuak etxera ekarri nahi ditugu!"



Partida amaitu ostean ateratako argazkia. 1-0 irabazi zuten Behobiaren aurka. Javier Pastor (ordezkaria) Adam, Ibrahim, Gorka, Unai, Amets, Lain, Pablo De Torres (entrenatzailea), Jon, Urko, Danel, Josu, Lander, Mattin, Unax, Aimar, Oier, Eñaut, Markel. AIURRI

## Urnieta garaile, igoerako ligaxkako lehen partidari

**FUTBOLA** Denboraldi polita egiten ari da jubenil mailako C taldea. Ligan, bigarren sailkatu ostean, hamasei jardunaldi izango dituen igoerako ligaxkari ekin diote. Lehen partida etxean jokatu zuten eta amaitzek zela sartu zuen Unaxek garaipenaren gola

### Erredakzioa URNIETA

Gizonezkoen jubenil mailako Urnieta taldeak garaipen batekin ekin dio igoera faseari, aurreko larunbat arratsaldean *in extremis* iritsi zena, ia-ia partida amaitzek zela. Behobia, asteburu honetako aurkaria, aireko jokoan nagusi zen eta egindako azken aldaketekin, zelaian zuten posizioa aldatu zuten. Urnietak baloi luzeekin erantzuteko aukera baliatu zuen. Berdinketarekin amaitzek zela partida, Unaxek aurkariaren atezaina gainditu zuen. Epaileak lau minutuko luzapena erabaki zuen, eta minutu horietan Behobiako jokalariek urnietarren atean murgildu ziren.

Beti da ona hiru punturekin ekitea igoera faseari. Lehiaketa luzea eta gogorra izango da, eta ondo entrenatu beharko da azken unera arte lehiatzeko. Igoera fasea, denboraldi honetan, 16 taldek osatzen dute eta denak denek aurka ariko dira partida bakarrera.



Amaitu orduko ospatu zuten garaipena De Torresen mutilek. AIURRI

Igoerako ligaxkan aritu aurretik, Pablo De Torresek zuzentzen duen taldeak –Jose Pascualen laguntzarekin– ligan bigarren postuan sailkatu ziren. Meritu


handikoa da lortu dutena, izan ere, Jubenil mailako Urnieta C taldea lehen urteko jokalariek osatzen dute, oso-osorik. Hamazortzi jokalaririk dira, denek.



ZUMEATARRA

## Kros ligako txapelduna

**ATLETISMOA** Urtarrilean balentria lortu zuen Aimar Sukuntza Zumeatarrako korrikalariak. Oiangun ospatu zen Euskadiko txapelketan hirugarren sailkatu zen 23 urte azpiko mailan. Liga osoko emaitzak aintzat harturik bera izan da erregularrena eta, ondorioz, berea izan da Euskal Ligako txapela.



ZUMEATARRA

  
andoa**INDARRA**  
euskaraz

## Bikain aritu zen Laida Guerrero igerilaria, etxeko proban

**IGERIKETA** Gipuzkoako Neguko Saria ospatu zen Andoaingo Allurralde kiroldegian, aurreko larunbatean

**Aiurri komunitatea**

Buruntzaldea IKT taldea

BETERRI-BURUNTZA

Bertan izan genuen lehian Laida Guerrero Buruntzaldea IKT taldeko kidea. Laidak igeri eginda-ko probatan, 200 libreko marka

hobetzea lortu zuen (3:12,19) eta, horri esker, podiumeko bigarren postuan egotea lortu zuen. Infantil mailan zilarrezko domina lortuta. Estilo libreko 50 metrokoan ere parte hartu zuen. Zorionak, Laida, lortutakoagatik!

Larunbat honetan, gure igerilariak Zarautzen ariko dira, III. Abiadura Sarian, lehian.

**Eskertza-mezua**

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu txapelketa gauzatzen lagundu ziguten bolondres guztiak. Mila esker Unai Iparragirre, Javier Guerrero, Daniel Garmendia, Itsaso Tolosa, Intza pagola, June Apeztegia, Lier Garmendia eta Borja Apeztegia; zuen prestutasunik gabe ezingo genuke sariketa antolatu!



Laida Guerrero, podiumean, zilarrezko domina jantzita. BURUNTZALDEA IKT



Leizaranen aurkariak partida bakarra galdu du ligan. AIURRI

## Urdaneta liderra etxean jasoko du Leizaran Lanbroa taldeak

**ESKUBALOIA** Larunbatean jokatuko da partida, arratsaldeko 18:00tan hasita, Allurralde kiroldegian


**Erredakzioa ANDOAIN**

Euskal Ligako hamalagarren jardunaldian Andoaingo taldeak Urdaneta liderra jasoko du. Aurreko asteburuan Urdaibairen aurka galdu zuen Leizaranek (34-24), eta sailkapenean postu bat galdu du.

**ESKUBALOIA**

**SAILKAPENA**

1	URDANETA	24 p.
2	EREINTZA	22 p.
3	URDAIBAI BILBOATS	18 p.
4	LEIZARAN LANBROA	16 p.
5	MALAPE ELGOIBAR	16 p.
6	IRAULI BOSTEKO	14 p.



Intza Del Tesok irabazi zuen Beran. Izaro Etxarri bigarren sailkatu zen. ANDOAINGO

## TXIRRINDULARITZA Ziklo-kros denboraldia osatu dute

Andoaingo Txirrindulari Eskolako neskek pistan, errepidean eta ziklo-krosean trebeak dira. Berriki amaitu da ziklo-kros denboraldia eta Andoaingo klubak udazken-neguko emaitzen berri eman du: "Intza del Teso, Izaro Etxarri eta Irati Aranguren aritu dira denboraldi honetan. Intzak Euskadiko ziklokros rankinean hirugarren postuan amaitu du. Berako lasterketa

irabazi zuen eta bigarren sailkatu zen Berrizen, Leioan eta Urdiainen. Izaro, berriz, Artikan izan zen irabazle eta bigarren Beran. Irati As Pontesen egin zen Espainiako txapelketan bigarren sailkatu zen. Aurretik, Lezaman egin zen lehen proban gailendu zen eta baita Alacant aldeko Cocentainan ere. Taronan, Igorren, Aiara eta Amurrioren bigarren izan zen. Munduko txapelketan (Lievi, Italia) 26. postuan sailkatu zen.

Laster errepidean murgilduko dira.



Infantil mailako neskek. UKE

## ESKUBALOIA Urnieta KEko senior mailako bi taldeak, garaile

Lurraldeko lehen mailan, Urnieta Artola harategia taldea nagusitu zitzaion Egiari (32-27). Eta, bigarren mailan, gorritxoek Donibaneren kantxan irabazi zuten (24-25).

Kadete mailan, Urnieta Iñaki Mecanizados taldeko neskek garaile izan ziren Usurbilen (23-25). Eta, infantil, mailan, urnietarrek Hernaniren bisitaldia jaso zuten (16-28).

## Azpiroz eta Ansa, berriro ere Kutxabank Masters finalean

**ERREMONTEA** 2024ko finaleko protagonistak larunbat honetan ere elkarren aurka ariko dira

**Erredakzioa URNIETA**

Hirugarren Masters txapelketa jarraian irabaztea da Imanol Ansaren erronka handiena. Larunbat honetan, Galarretan, historia egiten jarraitu nahi du urnietarrak. Aurrez aurre Az-

piroz izango du, iazko finalista bera. 2024koan finala sakean eta erretoan erabaki zen. Ansa nabarmen gailendu zen eta horri esker 30-19 irabazi zuen. Iraganak ez du deus ziurtatzen, ordea, eta partida jokatu beha-

rrada dago. Azpirozek eskura du lehen txapela lortzea eta ez du hain erraz etsiko.

Galarretan jende asko elkartzeko espero da. Hara joaten ez denak, halere, EITB-tik zuzenean jarraitu ahal izango du finala.

**Palmaresa**

Txapelketak bost txapeldun ditu historian: Ezkurra (2011 eta 2012), Urriza (2013, 2014, 2017, 2018, 2019 eta 2021), Uterga (2015 eta 2016), Barrenetxea IV (2020 eta 2022) eta Ansa II (2023 eta 2024).



Azpiroz sasoiako dabilela dio Oriamendik. ORIAMENDI

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## BATZARRA

## ANDOAIN Euskaraldia

Udaberriko ekimena antolatzen hasteko bilera irekia.  
Otsailak 6, osteguna.  
18:30, Urigain.

## ODOL-EMAILEAK

## ANDOAIN Hitzordua

Andoainen, datorren astelehenean. Urnietan, martxoaren 24an.  
Otsailak 10, astelehena.  
16:30, Osasun Etxea.

## ANTZERKIA

## ANDOAIN "Zorretan"

Hika teatro konpainiak zaintzari buruzko tragikomedia sortu du.  
Otsailak 14, ostirala.  
19:30, Bastero.

## ERAKUSKETA

## ANDOAIN Langara

Futbolari ezagunari eskainitako erakusketa.  
Otsailak 15, larunbata.  
12:00, Bastero. Irekiera-ekitaldia.



Interesa duenak aurretik eman behar du izena. AIURRI

## ANDOAIN Argazkilaritza-tailerra

Artxibo dokumentuen balio ezkutua aztertuko dute, familia albumetatik edota artxibo publikoetatik ateratako argazkiekin lan eginez. Ondoren, tailerreko lanekin erakusketa osatuko dute. Izen ematea: Idatzi trentxiki.ae@gmail.com. Tailerra Sara Berasaluzek eskainiko du.  
Otsailak 14, ostirala. 18:00-21:00, Urigain.

## DANTZA

## URNIETA "Ots"


Euskal musika garaikidearen sorburua, antzezlanera eramana.  
Otsailak 16, igandea.  
19:00, Sarobe.

## MUSIKA

## ANDOAIN Kanbalatxe tango

Entzuteko eta dantza egiteko proposamena Bastero-Kafe zikloan.  
Otsailak 21, ostirala.  
19:00, Bastero.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO


**Mikaela**  
Otsailak 8, larunbata. 19:30.  
Otsailak 9, igandea. 19:30.  
Otsailak 10, astl. 17:00, 19:30.

## Mufasa

Otsailak 9, igandea. 17:00.

## 5 Septiembre

Otsailak 15, larunbata. 19:30.  
Otsailak 16, igandea. 19:30.  
Otsailak 17, astl. 17:00, 19:30.



## SINOPSIS

## Mikaela

**Zuzendaria:** Daniel Calparsoro. **Aktoreak:** Antonio Resines, Natalia Azahara, Roger Casamajor, Adriana Torrebejano, Pavel Anton, Cristina Kovani... **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra, akzioa. **Iraupena:** 90 m.

## Erlojuaren aurka, ekaitzaren erdian

Errege Magoen egunaren bezperan, elur-ekaitz batek inguru guztia astintzen du. Autobide kolapsatu baten kaosaren erdian, lapur talde bat aukera baliatzen ari da furgoi blindatu bat erasotzeko. Handik metro gutxira Leo (Antonio Resines) dago, galtzeko ezer ez duen polizia. Neska gazte baten ustekabeko laguntzarekin (Natalia Azahara) taldeak lapurtutakoarekin ihes egin ez dezan saiatuko dira. Erlojupeko jazarpena izango da ekaitzaren erdian.

## Mufasaren emanaldi bakarra



Rafikik, Timonek eta Pumbak Mufasaren kondaira kontatzen diote Kiara lehoikume gazteari. Istoria flashback-etan kontatzen da eta Mufasa umezurtz kume baten moduan aurkezten dute, galduta eta bakarrik Taka izeneko lehoi atsegin bat ezagutzen duen arte. Topaketak bere helmuga gabeko talde bikain baten bidaia miragarria abiaraziko du.

ZOKKETA



OTS,  
Garraxi  
mutuak,  
ixiltasun  
dantzatuak

AiurriKIDeen artean  
2 sarrera zozkatuko ditugu

Irabazlea:  
Arantxa Irazustabarrena Lasa

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaituz AiurriKIDE

AIURRI  
KIDE

Mus txapelketa  
Ontza  
elkartean

Andoaingo Ontza elkarteak XLIX. mus txapelketa antolatu du, Joxe Mari Erkizia memoria izeneko. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago. Bikote bakoitzeko 50 euro ordaindu behar dira, finala jokatuko den eguneko afaria barne. Izena emateko epea datorren otsailaren 20an amaituko da.



# Bikaina, Ubitarteko taberna-zerbitzua

Astebururo Ubitartera hurbiltzen diren futbolzaleek Euskaldunako taldeen joko eta golez gain, badute beste erakargaririk: harmailtan dagoen taberna. Ederki estimatzen dute bertatik jasotzen duten zerbitzua

## Xabier Lasa ANDOAIN

Leire Varquero, Markel Varquero eta Eñaut Arnaiz gazteak arduratzen dira, txandaka, tabernarekin. Markel eta Eñaut Euskaldunako jokalariek ere badira, eta lehiaketako partidekin konpromisoa daukatenean, Ohian Horrillok ordezkatzeko dituzte. Dena esatera, Euskaldunako zuzendaritzako kide den Pako Varquerok, taberna salgarriaz hornitzen du astegunetan.

## Astebururo, irekita

Leire Varquerok adierazi digunez, izan larunbata, izan igandea, zelaian programatuta dagoen lehenbiziko partida baino ordu erdi lehenago altxatzen dute pertsona. Egundoko estimazioa dauka tabernak: "Tortilla eta txorizo-pintxoak, kafea, freskarriak, litxarkeria batzuk... Gazteen artean, berebiziko arrakasta dauka Aquariusak".

Eskola-Kirola egokitzen denean bizi ohi dute estualdirik handiena: "Zelaia erdibituta, zortzi-zortziren kontra aritzen dira, lau talde. Egin kontu, haur edo gaztetxo bakoitzak gurasoak, aitona-amonak eta gainerako lagun eta senideak erakartzen ditu. Horietako batzuk zerbait kontsumitzera etortzen zaizkigu... Atsedendietan, gehienak".



Leire Varquero eta Oihan Horrillo gazteak, Ubitarteko tabernan. AIURRI

## Leku ospela, tabernarentzat "lagungarri"

Ubitartera hurbiltzen diren zaletuak ondotox daki zein ospela den zelaia, neguan eta udazkenean, batik bat: "Oria ibaiaren ondoan dagoelako edo, baina hotz samarra da lekua. Kanpoko taldea babestera Andoainera etortzen ziren zaletuek ere horixe azpimarratzen digute", Leire Varquerok baieztatu duenez. Ubitarteko baldintza klimatiko zeken horrek badu onuradunik, eta tabernaren martxan eragina du, jakina:

"Gorputza berotzeko eta egonaldia eramangarriagoa egiteko, kafe bero bat behar izaten du jendeak".

## Bonboa, eskura

Taberna kontsumizioez josita edukitzen duten arren, etxeko taldea animatzeko bonbo ezaguna bertan dute gordeta. Txoko berezian, gainera: "Euskaldunako jarraitzaileek badakite bertan gordetzen dugula bonboa. Nahi dutenean hartu dezakete, jokalariek animatzen has daitezten!".


## Aiurri.eus, fala galego, parla català

Martxan da albisteen titularrak eta sarrerak automatikoki itzultzen dituen sistema

## Erredakzioa ANDOAIN

Lerroburuak itzultzeko sistema martxan da TOKIKOMeko hainbat webguneetan, baita Aiurri.eus-en ere. Itzulpen sistemaren helburua ez da toki komunikabideon edukia osorik itzultzea: euskarazko komunikabideak gara eta halaxe jarraitu nahi dugu. Baina bai eskaini nahi izan diegu laguntza txiki bat gugandik gertu, baina euskarazko komunitatetik kanpo bizi diren herrikideei, hurbiltzeko aukera izan dezaten. "Teknologia zubi gintzarako aukera opa-roa eskaintzen digu, eta ez diogu horri uko egin nahi izan", azaldu du TOKIKOMeko Komunikazio eta IKT zuzendariak, Joxe Rojasek. TOKIKOMek asmoa du hizkuntza gehiago gehitzeko sistemara, batez ere gure herrien bueltan mugitzen diren hizkuntza komunitate txikiei euskaldunokin bat egiten laguntzeko. "Erronka soziolinguistiko zein teknologiko handia da, baina bidelagun egokien bila ari gara lanketa osatua egin eta euskal komunitatearen ikuspegitik zentzua duen eskaintza egiteko, teknologiarekiko besterik gabeko liluran jausi gabe". Treberen laguntza teknikoarekin garatutako itzulpen-sistema hainbat tokiko webguneetan topatu daiteke, tartean, Aiurri.eus-en.

## ZORION AGURRAK



## ANDOAIN

### Gora "gaziak"

Irunek 12, Imanolek 20, Aitorrek 40, Ikerrek 28 eta Maialenek 31! Urtarrilak 30, 31 eta otsailak 2, 7 eta 9an urtebetzeak izan dituzte. Betiko moduan ospatuko dugu, topa ta muxuak boskote!



## ANDOAIN

### Zorionak Gorka eta Iruñe!

Zorionak bikote! Egun ederra pasa dezazuela! Ospatuko dugu, bai, denok elkarrekin! Maite zaituztegu! Etxekoak.

## MERKATU TXIKIA

## ANDOAIN | ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorra badira hobeto! 650341108.

## ANDOAIN | SALMENTA

Bi ohe artikulatu salgai, koltxoi eta somierrek barne. Berri-berriak. 664 462 517

## Axeri Dantza berreskuratu zela 50 urte beteko dira aurten

Larunbat honetan, eguerdiko 12:00tan Goikoplazan, emango dute efemerideari loturiko jardueren berri

## Erredakzioa ANDOAIN

Era berean, 25 urte beteko dira emakumeak Andoaingo Axeri Dantzan parte hartzen hasi zirenetik. Urteurrenoko ekitaldiak iragartzeko agerraldia deitu du Andoaingo Axeri Dantza Elkar-

teak, larunbat honetarako. Historian atzera eginez, Lizar Makileko dantzariak, 1975eko Amabirjin egunean, ahanzturatik berreskuratu zuten ohitura zaharra. Adunan izan zen hori, eta handik urtebetera, saio bera

errepikatu zuten Andoaingo Goikoplazan, San Juan egunean. Bixente Olanori zor zaio, hein handi batean, berreskuratzelana egin izana. Geroztik, Andoain ez dute hutsik egin. Sanjuanetako hitzordu nagusietakoa da. Adunan, berriz, 80ko hamarkadaren hasieran heldu zioten dantzari, eta urtez urte eutsi diote usadioari.

2025a, beraz, urte berezia izango da Andoaingo axerientzat. Ospakizun biribila izango da, eta ekitaldi-sorta egitekotan dira.



## Santa Ageda bezperako kantu-erronda

Argazkiak, bideoak.

**ATAL BEREZIA WEBGUNEAN**

**www.aiurri.eus**



Omenaldi-ekitaldian parte hartu zuten hainbat lagun, omenduekin batera. AIURRI

# Auzokideen omenaldia, Jose Luis Cregori

Andoingo Olagain auzunean, urte luzez, Jose Luis Cregok eta konpainiak gizarte bizitza areagotzeko lan handia egin dute. Aurreko larunbatean, ezustean, auzotarren omenaldia jaso zuen

## Xabier Lasa ANDOAIN

Egun osoko ospakizuna egin zuten Olagain auzoan, aurreko larunbatean. Egitaraua ezaguna zen baina, aldiz, omenaldi-ekitaldia sekretupean igaro zen. Horregatik, egundoko ezustekoa hartu zuen Jose Luis Crego auzotarrak.

## Cregoren eskertza

Olagain auzoko eraikinean ezusteko omenaldia eskaini zioten Jose Luis Crego auzotarrari. Maizorriko txalapartariekin hasi zen saioa eta bertan parte hartu zuten Olagaingo txistulariek eta Alberto Agirre abesbatzako ki-deek. Eserlekutik altxa eta mikrofonoari heldu zion eskertza adierazteko: "Erraz hunkitzen naiz, pertsona sentsiblea naizelako. Auzoan egin duguna, hein handi batean, laguntza eman duen guztiari zor zaio. Beraz, nire alboan egon direnei eskerrak eman nahi dizkiet. Ahal dugun heinean lagundu dugu eta, une honetan, ez daukat hitzik, ez



Jose Luis Crego eta, alboan, Chelo Aguadero emaztea. AIURRI

nuelako horrelakorik espero. Uste dut ez dudala hainbeste merezi, auzoan badelako beste hainbeste merezi duen bizilagun gehiago. Ahal dudanean, juntakide berriei laguntza emateko prest izango naiz. Adinekoengatik, bereziki. Izan ere, adinekoak gozatzen ikustea pozgarria da, oso. Beraz, eskerrik asko

guztioi". Txalo zaparradarekin amaitu zen Cregoren hitzartzea. Jarraian, Urki dantza-taldeko Eñaut Egaña dantzariak Agurra dantzatu zion (omenaldi-ekitaldiaren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean, bideoen atalean). Auzo bazkariarekin eta dantzaldiarekin jarraipena eman zioten ospakizunari.

## Ospakizuna Olagain auzoan



Eguerdian hasita, jende asko elkartu zen Olagainen. AIURRI

**Eguerdian hasita** Eguraldia lagun, auzotar asko elkartu zen tabernaren inguruan. Omenaldi-ekitaldia izan zen, eguerdian. Segidan, bazkaria eta dantzaldia eduki zituzten.



Ospakizunak auzoko tabernan izan zuen jarraipena. RAQUEL CONDE

**Bazkaria eta dantzaldia** Egun osoko ospakizuna egin zuten auzunean, taberna jai-giroaren erdigune bilakatuta. Hainbat belaunalditako bizilagunak elkartu ziren, lagunarteko giroan.